

# EMANTZIPAZIORAKO PRESTATZEKO ZENTROAK

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Jatorrizko familiekin bizi ezin diren adingabeentzako arreta**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

**Babes sisteman** dauden **adingabeak**.

## Kostua

**Doako zerbitzua.**

## Baldintzak

**Adingabeak** (salbuespenak izan ezik).

**Administrazioaren tutoretzapean** egotea.

## Zertan datza?

Emantzipazio-zentroetan, adingabeak bizitza independenterako prestatzen dira, etxetik irtetean familia batean integratzea ezinezkoa dela ikusten den kasuetan ([2.4.4 fitxa](#)). Zentroak erraztasunak ematen ditu bizitza autonomorako trebetasun pertsonalak eta sozialak eskuratzeko, eta hezkuntza-laguntzako, prestakuntzako eta/edo lan orientazio eta sarrerako. Langileen presentzia iraunkorra izaten dute. Otordu-, garbitegi- eta garbiketa-zerbitzuak eskaintzen dituzte, baina era mugatuan, ondoren emantzipatzeko autonomia errazteko.

## Norentzat?

**Administrazioaren tutoretzapean** dauden **adingabeak**.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Doako** zerbitzua da.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**Adingabe izatea**. Salbuespen gisa, 18 urte beteta izan eta adinez nagusi izan aurretik babes-baliabideren batean bizi ziren gazteak ere izan daitezke erabiltzaile, gehienez ere 18 hilabetez.

Egoitza-harrerako **neurri administratibo edo judicial** bat izatea.

**Aita, ama** edo **tutorea**, inguruabar larrien ondorioz, **zaintzeko aldi baterako ezintasunean** egotea.

Haurraren edo nerabearen **zaintza Foru Aldundiari esleitua izatea**, epaileak hala erabakita.

## Non jaso dezaket zerbitzuaren berri?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

## Informazio gehiago:

- [Emantzipaziorako prestatzeko zentroak Araban](#)
- [Emantzipaziorako prestatzeko zentroak Bizkaian](#)
- [Emantzipaziorako prestatzeko zentroak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)